



BIZIPEN ARKITEKTONIKOAK

Arkitekturak, bere funtsezko helburuak aparte, eraikuntzak ingurugune historiko eta geografikoan kokatzen ditu. Horrela eraikuntza hauek nortasun bat, izaera bat, esan nahi bat beregantzen dute.


Horregatik eraikuntza bakoitzak bizipen berezi batzuk, sentimentu konkretu batzuk sortarazten dizkigu: honek sakonagoak, hark poetikoagoak, batzuetan bere historiaz hitz egiten digu, besteetan bere edertasuna harro aurkezten digu. Eta guk batzuetan azaletik miresten dugu bere edertasuna, eta beste batzuetan bere barnean murgildurik bere nortasunarekin harremanetan sartzen gara.

Marrazki hauen bidez nere bizibidean aurkitu ditudan eraikuntza batzuek kitzikatu dizkidaten bizpen eta sentimenduak agertu nahi izan dut, bere azaletik edo barnetik, bere historia-tik edo jarreratik argitzalezko hizkuntza barnekoi mehe eta sotilarekin eman dizkidaten mezuak isladatu







ITURRETAKO SAN KRISTOBAL ERMITA, Markina, Bizkaia, (ca. 1530).- Baliabide apalekin egindako diseinu kultuko ermita honek baserri eta itsasontzien egiturak uztartzen ditu. Ehun haritz bikain haizkoraz eta zeioaz bota eta gero jasotako eraikuntza hau beste ermita asko bezala, garai bateko auzuneko bizitzan garrantzizko bilgune gertatzen zen.




OÑATIKO UNIBERTSITATEKO KLAUSTROA (Gipuzkoa) (1539-1545).- “Errenazimenduko zientziaren eta aurreko mendeetako basakeriaren arteko borroka irudikatzen duen eraikin adierazgarria”. Baserrien antzera lurrarekin bat eginik, eraikin hau geografian eta historian neurri berean txertatuta dago. Bere garaian gure lurretara ekarritako Errenazimenduko estiloa euskal izaerara egokitu zuen.




EUNATE (Nafarroa (1170?)).- Tenplarioen eliza? Erromesen ospitale? Hilerri-eliza? Historiak isilpean gordetzen du arkitekturako bitxi honen sekretua. Gaur egun funtsik gabeko luxu iruditzen zaigu erromesen abegikortasunaren santutegia eta betiko atsedengunea lekutua dagoen “ehun arkuko” harrespil hau.




KATRAPONAKO TUNELA, Getaria (Gipuzkoa) (XV. Mendea).-
Kaia eta herria lotuz harresian barrena doan igarobidea, elizako kriptak zeharkatzen duen bide sakratua, arrantzaleen Ama Birjinaren irudia gordetzen duen baselizaren kokagunea, arrantzaleak eta herritarrak, elizaren magalean zuten topagunea: hau guztia da eraikin bitxi hau.




LEIREKO KRIPTA (Nafarroa) (IX. Mendea ?).- Egitura arkitektoniko ikusgarri honek, bere soiltasun arkaiko eta bizitasun indartsuarekin historiako garai eta ezaugarri ugari eusten ditu: mugimendu nazional-erlijioso, errege-erreginen egoitza, Nafarroako eguneroko bizitza erlijiosoaren iturria eta Euskal Herriko gotzainen mintegia, besteak beste.




AZKOITIKO ETXE ZINTILIKARIAK (Gipuzkoa).-Izei harroak erdeinari bere burua jasotzen duten bitartean, etxe bitxi hauek, horma sendoetan bermaturik, denak begi eta behatoki, ibaiaren joan-etorri apala mirestu nahi dute, elkarri esames eta marmarren berri emanez, auzotar on eta adiskide bereiztezinak bailira bezala.




LAINOKO GOBAK (VI. Mende inguru).- Lehenbiziko euskal gizon-emakumeen erlijioaren antzera, antzinako euskal kristau erlijioa haitzuloetan babestu zen. Antzinako gizaki trogloditek, haitzuloetatik irten eta gero trikuharriak eta *kromlechak* bere jentil erlijioaren ezaugarri eraiki zituzten bezala, geroago gizon troglodita berriak, eliza erromaniko, katedral gotiko, zurezko basiliza eta harrizko apostoluak eraikiko dituzten kristauak haitzean zulatutako tenpluetan erlijioa lurraren baitan bildu zuen.



SAN TELMOKO KLAUSTROA, Donostia (Gipuzkoa) (1544-1562).- Hara Euskal Herriaren historiari begira dagoen begia, bere hormetako harrietan historia horren atalik garrantzitsuenak bereganatuz: gotikoaren bertikaltasuna, Errenazimenduaren balore klasikoaren zaharberritzea, erlijioari darion intsentsu-usaina, sakon errotutako borrokazaletasunaren artileri-plomoa, kultur ondarea, guztia ere gaur egun museo bihurtua.




VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, Donostia (Gipuzkoa) (1910).- Hiria, hiritarrei zuzendutako erantzun; hiria hiritarren gozaleku; arkitekturaren bikaintasuna, hiritarren aisialdiaren kalitate; dotorezia soila, hiritarren bereizgarri. Hauxe guztia isladatzen du Donostiako gune zoragarri honek.



GAZOLAZKO GARBİKUNDEAREN ELIZPEA (Nafarroa) (XIII. Mendea).- Zutabe erromanikoen sortak, kapitelez hornitutako friso jarraiak, gotiko ikutu bat darien arkuak: ezaugarri hauek guztiek apaindura traukilez jantzitako, baina bizitasun sakonez betetako ingurugune orekatu eta gogoragarria osatzen dute. Elizpe hau auzotar guztien bilgune zen eta bertan, elizaren itzalpean, eguneroko bizitzako garrantzizko auziak eztabaidatzen zituzten.



HILERRIKO ATAURREA, Elgoibar (Gipuzkoa) (XV. Mendea).- Antzinako Olasoko San Bartolome monastegiak zuen elizaren ataurrea hilerriko ate dugu gaur egun. Haren zaborretik jeikitzen da hogeit hamar estatua txiki eta giza neurriko beste lau nabarmentzen dituen gotiko garaiko aberastasun galduen eta tenplarioen zeloaren lekuko isila.



KONSTITUZIO ENPARANTZA, Donostia (Gipuzkoa) (1819).- Txistu eta danbolinaren oihartzunak, talo eta txistorraren usaina, hamaika bizipen lagunarteko edo familiarteko aisialdi giroan, hamaika garrantzirik gabeko elkarrizketa eta beste horrenbeste sekretutxo eta barren husteta pare bat txikito tartean direla, guztia adiskidetasunaren arkuek uz-tartuta eta udaletxe zaharraren zaintzapean.

Juan Maria Arrizabalaga